



**Euskararen Erakunde Publikoa
2018 - 2022 proiektu estrategikoa**

2018ko urria

Aurkibidea:

| | |
|--|----|
| I. Euskararen aldeko politika publikoaren egituratze progresiboa 2016 hondar arte..... | 2 |
| II. 2018ko testuingurua: hizkuntza politikaren ingurune berria | 7 |
| III. EEPk eramaten duen hizkuntza politika: helburuak, printzipioak, jarduera-esparrua | 10 |

Eranskinak:

1. Eranskina Euskal Hirigune Elkargoaren euskararen aldeko hizkuntza politika
2. Eranskina Hizkuntza politikan rolak nola banatzen diren erakusten duen behin-behineko taula
3. Eranskina Frantses Hezkuntza Nazionala, Akitania Berria Eskualdea, Pirinio Atlantikoetako Departamendua eta Euskal Hirigune Elkargoaren arteko 2017-2022 Hitzarmen markoa

I. Euskararen aldeko politika publikoaren egituratze progresiboa 2016 hondar arte

Ibilbidea: euskalgintzako elkarteek zeramaten ekintzatik aginte publikoen eskuhartze progresibora

1970-1990 urteetan, elkarteek zeramaten nagusiki euskararen aldeko jarduna. Euskararen aldeko ekimen andana bideratu zuten eta arlo askotan egituratzaileak izanen ziren dispositiboak eraikiz: euskarazko irakaskuntza, helduen euskalduntzea, hedabideak, ikasmaterialgintza, eta abar.

1990-2000 aldian, aginte publikoak gaiak pixkanaka jabetzen hasten ziren:

- 1992-1993: Ipar Euskal Herria 2010 prospektiba lanean euskara eta euskal kultura aintzat hartzen ziren
- 1997: hizkuntza antolamendu eskema onetsi zuten Ipar Euskal Herriko antolamendu eta garapen eskemaren barnean
- 2000: 2001-2006 Hitzarmen Berezian "euskara" atal berezi bat onartu zen
- 2001: hizkuntza politikarentzako Obragintza Publiko bat sortu zen, aginte publiko guztiak bilduko zituen euskalgintzako eragileen aldeko lehen diru-laguntza programa adostu bat osatzeko
- 2004: euskararen aldeko politika publiko adostua zehazteko eginkizuna izanen zuen zuzenbide publikoko egitura baten sortzea, Euskararen Erakunde Publikoa

Euskararen Erakunde Publikoa sortuz aginte publikoek beren euskararen aldeko engaiamendua iraunkortu eta sendotu zuten

2004ko bukaeran Euskararen Erakunde Publikoa sortuz, aginte publikoek Obragintza Publikoarekin abiatu lana iraunkortu zuten. Horretarako, hizkuntza politikarentzako Interes Publikoko Egitura deituriko tresna juridikoa osatu zuten. Egitura horretan bildu ziren frantses Estatuak, Akitania Eskualdea, Pirinio Atlantikoetako Departamendua, Euskal Kulturaren Aldeko Herrien Arteko Sindikatua (EKAHAS) eta Ipar Euskal Herriko Hautetsien Kontseilua. Honakoak ziren Egituraren eginkizunak (ikus EEPren sortze hitzarmenaren 2. artikulua):

- euskararen aldeko hizkuntza politika publikoa eta hitzartua asmatzea, definitzea eta obratzea.
- behar diren diru baliabideak bermatzea, bere egitasmoan ezarri dituen ekintzak edo obralari batzuekin hitzartu dituenak gauzatzeko.

Euskal Hirigune Elkargoa 2017ko urtarrilaren 1ean sortu zen eta EEPn sartu zen herrien blokeko ordezkari gisa, frantses Estatuak, Eskualdea eta Departamenduaren ondoan. Honela, Euskal Kulturaren Aldeko Herrien Arteko Sindikatuaren eta Hautetsien Kontseiluaren lekuak hartu zituen.

Euskararen aldeko politika publikoaren esparrua zehaztea: Hizkuntza Politika Proiektua aho batez onartu zen 2006ko abenduan


2006ko abenduaren 26an, EEPko Administrazio Kontseiluak Hizkuntza Politika Proiektua aho batez onartu zuen: honela aginte publikoei hizkuntza politikan jarduteko erreferentziako marko bat ematen zitzaien. Hizkuntza Politika proiektuak honakoak finkatzen ditu:

- **helburu nagusi bat: hiztun osoak**, euskara menperatzen eta eguneroko jardura profesional, pribatu eta sozialean erabiliko dutenak
- **lehentasun bat: belaunaldi gazteak**, hauetan ikusten hasi baikara euskara berreskuratzen hasten dela

Beraz, EEPn bilduak diren aginte publikoek hiztun osoak egiteko dinamika bat bultzatzea erabaki dute, belaunaldi gazteetan lehentasuna emanez.

Hizkuntza Politika Proiektuak 12 erronka nagusi ditu euskararen transmisioa eta erabilera garatzeko, eta 3 multzotan banatuak dira:

- Euskararen transmisioa, familiaren, lehen haurtzaroko harreraren eta euskarazko irakaskuntzaren bidez
- Euskara hedabideetan, aisialdietan, argitalpenetan eta bizitza sozialean erabiltzea
- Zeharkako arloak: helduen euskalduntzea, hizkuntza kalitatea, hizkuntza ikerketa, motibazioa



12 erronka nagusi horietako bakoitzarentzat, hizkuntza politika proiektuak norabide estrategikoak finkatzen ditu, eta norabide hauek ekintzetan zehaztuak dira. Halaber, proiektuak hizkuntza politika gauzatzeko printzipioak finkatzen ditu:

- politika boluntarista
- eragileen eta hiztunen parte hartze askearen errespetua
- indarrean den lege esparruan
- politiken arteko koherentzia: hizkuntza politika arloko politikan txertatzea

Honela, bere gauzatzeari dagokionez, Hizkuntza Politika proiektua urraspide anbiziotsu eta boluntaristaren eta eragileen partehartze askearen bidegurutzean kokatzen da. Arlo guztietan eta lurralde osoan euskarazko zerbitzu eskaintza egituratzeko xedea du, nahia dutenek euskara ikas, erabil eta transmiti ahal izan dezaten.

Hizkuntza Politika proiektua gauzatzeko lankidetzaren politiken egituratze progresiboa:

2006 eta 2012 artean 1. mailako tokiko erakundeekin egituratu lankidetzak:

Herriak eta beren elkargoak tokian toki hizkuntza politika garatzeko lehentasuneko partaideak izanik, EEPk 2006an jadanik proposatzen zien, hiri eta herri elkargoek, beren eremuetan euskararen transmisioa eta erabilera areagotzeko lankidetzaren hartzea. Honela, 10 herri elkargoetatik 8ekin eta Baiona, Biarritz eta Hendaia hiriekin osatu ahal izan zituen partaidetzak. Pixkanaka euskara teknikari garatzaile sare bat egituratu da, abiatzean EEPren diruztatze batekin.

Herri elkargoek bat egin dutenetik 2017ko urtarrilaren 1ean Euskal Hirigune Elkargoa sortzearekin, eta honek hizkuntza politika eskumena hartu duenetik, bilakaera nabarmena ematen ari da, herrien blokeak bideratuko baitu eta hizkuntza politikak gero eta leku garrantzitsuagoa izanen baitu.

Eusko Jaurlaritzarekiko lankidetzak:

2003an Lurralde Kolektibitateen eta Eusko Jaurlaritzaren artean abiatu zen lankidetzaren protokoloaren ildo beretik, bertan Eusko Jaurlaritzak Ipar Euskal Herriko elkarteek egin ziezaikeen diru ekarpenei buruzko antolaketa hitzartua aurreikusten baitzen, EEPk eta Eusko Jaurlaritzak 2007an Hitzarmen marko bat izenpetu

zuten hizkuntza politika alorreko mugaz gaindiko lankidetzari izaera instituzionala emanaz. Hitzarmen hau berrikitan eraberritu da 2017-2022 aldirako, eta bi lankidetzari ardatz jasotzen ditu:

- Jarduera programa bat, EEPk eta Eusko Jaurlaritzak elkarrekin eramanen dutena (hizkuntza agirien baliokidetzak, euskararen mugaz gaindiko adierazle sistema, inkesta soziolinguistikoa...)
- Ipar Euskal Herriko elkarte eta eragile pribatuentzako diru-laguntza funts amankomuna, eta EEPk eta Eusko Jaurlaritzak elkarrekin esleitzen dituzten diru-laguntzak eskuratzeko proiektu deialdi baten antolaketa. 2017an funts amankomun hori 1.930.000 €z osatua zen (EEPk 1.530.000 € eta EJK 400.000 €)

2017an mugaz gaindiko lankidetzak esparrua Nafarroari ireki zitzaion. EEPk, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Nafarroako Foru Erkidegoak hitzarmen bat izenpetu dute beren arteko lankidetzak garatzeko (hezkuntza, helduen euskalduntzea, euskararen erabilpenaren sustapena, inkesta soziolinguistikoa, hizkuntza corpusa, sentsibilizazioa) eta elkarrekin ahaleginak egiteko hizkuntza politikaren erronkak Europako finantzamenduetan behar bezala kontsideratuak izan daitezzen.

Euskararen eta euskarazko irakaskuntza garatzeko hitzarmenezko dispositiboa:

Euskararen eta euskarazko irakaskuntza EEPren sorreratik agertu zen lanketa estrategiko gisa, ezen gaur egun irakaskuntza baita belaunaldi gazteei euskara transmititzeko bide nagusia (familia transmisioan hausturaren testuinguruan). 2004ean frantses Hezkuntza Nazionalako Ministerioak eta Lurralde Kolektibitateen hitzarmenezko hitzartze dispositiboaren kari, EEP egitura obratzailea izanik, euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaintza garatzeko politika boluntarista eraman dute. Horretarako honako printzipioei eutsi diete: lurralde osoaren estaldura, euskarazko irakaskuntzaren jarraikortasuna ama-eskolatik lizeoraino, eta familien hautu-eskubidea. Politika horri esker 61 sail elebidun berri ireki dira lehen mailan, irakaskuntza elebiduna eskaintzen duten lehen mailako ikastetxeen proportzioa % 42tik % 66ra pasa da, eta irakaskuntza elebidunean edo murgiltze ereduaren ikasleen kopurua 5.930etik (% 24,5) 10.517ra (% 39,5) igo da. Euskarazko irakaskuntzaren kalitatezko egituraketari dagokionez, politika hitzartu horri esker honakoak egin ahal izan ditugu: CM2 eta 3.eko klaseetan euskara maila neurtzeko ebaluazioak; eskola elebidunetarako irakaskuntza baliabideak ezarri edo kentzeko erabakien hartzeko modu berri bat; ama-eskoletan murgiltze eredu sartzeko esperimenduzkoak (17 esperimenduzko sare publikoan, 18 sare katolikoan); irakaskuntza elebidunaren azkartzea bigarren mailan euskaraz irakasten diren ikasgai berriak sartuz 15 kolegio elebidunetatik 10etan eta hauek 4etan oren parekotasuna lortuz; frantses Hezkuntza Nazionala, Unibertsitateak eta EEPren arteko hitzarmen marko bat irakasle eta irakasleagiei formakuntza eskaintzeko; Seaska, frantses Hezkuntza Nazionala eta EEPren arteko hitzarmena, Seaskak garatu duen murgiltze eredu pedagogikoa aitortzen duena, ikastolei ematen zaizkien zuzkidurak erabakitze metodo partekatua adostuz. Dispositibo horretan biltzen dira ere Ikas pedagogia zerbitzuari emanen zaion laguntza, hain premiazkoa den ikasmateriala sortzeko, baita talde pedagogikoei laguntza eskainiz euskararen transmisio alorrean, bereziki kurtsoetatik kanpo euskararen erabilera sustatzeko gara ditzaketen proiektuak diruz lagunduz.

Euskarazko lehen haurtzaroko harreraren aldeko dispositiboa:

Harrera kolektiboa (Haurtzaindegia): lehen haurtzaroko harrerak euskararen transmisioan duen garrantziaz jakitun, EEPk 2010az geroztik lehen haurtzaroko euskarazko harrera egituratzeko politika garatzen ari da, FaLK, MSA eta Departamenduekin. Haurtzaindegien labeltze sistema bat ezarri dute, 3 harrera hizkuntza-ereduekin. Labeltze batzordeak, EEPk animaturik eta partaideez osaturik, labeltze eskaerak aztertu, eman eta haurtzaindegien jarraipena egiten du. EEPk, Euskal Elkargoak eta herriek haurtzaindegia laguntzen dituzte hautatu duten labeltze ereduaren arabera irizpideak betetzen: langileen euskara formakuntza plana, seinaleetika eta dokumentu elebidunak, animazioak eta euskarazko atzartze materiala. 2010etik 25 egitura labeldundu dira edo labeltze bidean daude. Lurraldeko haurtzaindegien % 40 harrera elebiduna edo euskarazkoa eskaintzera engaiatu dira.

Etxe haurtzainak: haurtzaindegien eskaintza osatzeko, etxe haurtzainek euskarazko harrera eskaintzeko politika bat bideratu da Departamenduekin. Honek, etxe haurtzainen eskumena duenez, eskualdeko hizkuntzen sustatzeko programan sartu du euskarazko harreraren eskaintza egituratzea eta ikusgarri egiteko helburua. EEPk Departamendua lagundu du etxe haurtzainen baimentze dispositiboan hizkuntza gaitasuna txertatuz. Honela, beren haurrentzat euskarazko harrera nahi duten gurasoentzat euskarazko eskaintza ikusgarriagoa da. 2012tik 55 etxe haurtzainek eskuratu dute hizkuntza ziurtagiria.

Herriak laguntzeko hobekuntza kontratuen dispositiboa:

Herriak ageri dira lehen mailako partaide gisa, herritarrentzako euskarazko zerbitzuen egituraketan aritzeko. Gisa horretan, EEPko 2012ko uztailaren 16ko Administrazio Kontseiluak herrien laguntzarako dispositiboa bideratu zuen. Dispositiboa herrien eta beren langileen parte hartze askean oinarritua da. Bere helburua da Herriko Etxeko lehentasunezko zerbitzuetan pixkanaka elebitasuna sartzen laguntzea, hobekuntza urraspide

batean. Hobekuntza kontratua, Herria, Elkargoa eta EEPren arteko partaidetza hitzarmena da. Bertan biltzen dira herriak eginen dituela hitz eman dituen ekintzak, zerbitzu zehatz batzuk elebidun bilakatzeko (langile boluntarioen euskarazko formakuntza, zerbitzuen euskarriak euskarara itzultzea). Gainera, hiru partaideen artean gastuak nola partekatuko diren ere zehazten du. 13 Hobekuntza kontratu bideratu dira 2014 eta 2017 artean: Maule, Itsasu, Hazparne, Hendaia, Hiriburu, Senpere, Donibane Garazi, Uztaritze, Baigorri, Kanbo, Atharratze, Azkaine eta Donibane Lohizune.

Euskarazko aisialdi harrera garatzeko esperimentazioa:

Euskara eskola esparrutik atera eta eremu ludikora eramateko asmoz, EEPko Administrazio Kontseiluak 2014ko martxoaren 20an euskarazko harrera AGAZetan (Aterperik Gabeko Aisialdi Zentroak) garatzeko eskuhartze estrategia onartu zuen. Irizpide txostenean 2 eredu finkatzen dira euskarazko harrera egituratzeko, eredu bakoitzari dagozkion modalitateak zehaztuz. Dispositibo hau esperimentatzen ari da 3 AGAZ boluntarioran.

Eragile nagusiak euskararen erabilera garatzen laguntzea:

2011ko uztailaren 21ean EEPko Administrazio Kontseiluak zerbitzu publiko eta para-publikoetan euskararen erabilera garatzeko eskuhartze estrategia onartu zuenetik, hala nola publikoa errezibitzen duten eragile nagusiak, EEPk eragile hauek bultzatzen eta laguntzen ditu euskararen presentzia eta erabilera areagotzera, analisi eta diagnostiko elkarlan baten bidez: Lapurdi Kostaldeko Ospitalea, Donapaleuko Ospitalea, Capio Belharra Klinika, Biarritzeko Aguilera Klinika, Izpurako Luro Fundazioa, Pirinio Atlantikoetako Laborantza Ganbera, Pirinio Atlantikoetako Ofizio eta Ofizialeen Ganbera, Bil Ta Garbi Sindikatua, Baionako Euskal Museoa, Uztaritzeko San Josepe Lizeoa, Donibane Lohizuneko Sainte Marie Kolegioa, eta abar.

Enpresa, saltegi eta zerbitzuen laguntza:

EEPren ekintza hau saltokietara zuzendua da, bereziki supermerkatuetara (U Express Baiona, Super U Uztaritze, Leclerc Marinadour, Casino Shop Baiona, Intermarché Itsasu, Carrefour Market Hiriburu). Gainera, Euskal Moneta elkarte eta euskara erabiltzera engaiatu diren bere 3000 erabiltzaile pribatu eta 700 saltoki zein elkarterekin lan bat abiatu da: EEPk 210 saltokietako seinaleetika datuak itzuli eta hizkuntza baieztapena segurtatzen du.

Euskararako formakuntza profesionala:

Bideratzen ditugun politika guztiak euskararako formakuntza profesionalari dei egiten diote (herrietako hobekuntza kontratuak, haurtzaindegien laguntza planak,...). Izan ere, euskarazko zerbitzuak eskaintzeko langile euskaldunak behar dira. Honela, 2007tik, EEPk langile publiko zein pribatuen euskarazko formakuntza profesionala ezartzen laguntzen du teknika eta finantza aldetik, ezen hizkuntza politika lurraldera hedatzen den heinean beharrak gero eta handiagoak baitira: 2004ean 72 langile ziren formakuntza egiten, eta 2017an 225 langile. Zuzenbide arrunteko dispositiboak aldi oro erabiltzen dira, OPCA egiturek formakuntzaren % 75eraino beren gain hartuz, eta CNFPT-k formakuntzan dauden 20 taldeetatik 3ren formakuntza gastuaren 2/3a hartzen du. Azken aldian irakasle eta irakaslegaien euskararako formakuntza arras estrategikoa agertzen da. Izan ere, euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garapenak eta egituraketak irakasle euskaldunen beharra handitzen baitu.

Euskara gaitasunaren egiaztapen dispositiboa:

Hizkuntza Politika Proiektuak helburu bikoitza finkatzen zuen, alegia hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuarekin (EEMB) bat eginen lukeen egiaztapen bat eta mugaz beste aldeko egiaztapenekin baliokidetzeta sistema bat ezartzea. 2008an EEPk, unibertsitateekin duen lankidetzaren kari, EEMBa oinarritzat hartzen duen Euskara Gaitasuna Egiaztatze Dispositiboa sortu zuen. EEPk animatzen duen batzorde zientifikoak azterketen edukiak, antolaketa, zuzenketak eta ebaluazio baldintzak finkatzen ditu. C1 mailako egiaztatzea 2009an hasi zen, urtero 2 azterketa saiorekin, udaberrian eta larrazkenean, Baionako Campusean: 942 azterketari eta 13 saio. Mugaz beste aldean ematen diren egiaztagiriekin baliokidetzeta ere indarrean da (Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren 2010eko maiatzaren 10 eta azaroaren 9ko dekretuak). B1 mailako egiaztapena 2015ean hasi zen: 49 azterketari 2015ean, 61 azterketari 2016an eta 83 azterketari 2017an. Formakuntza profesionalari buruzko legea aldatu denetik, EEPk C1 mailako EGA eta B1 mailako B1EA gaitasun agiriak Frantziako Lanbide Egiaztapenen Batzorde Nazionalaren Inbentarioan eta Formakuntzarako Kontu Pertsonalarekin balia daitezkeen lanbide formakuntzen eskualdeetako zerrendan sartu ditu.

Hedabideak:

Berriki EEPk lan eskerga abiatu du hedabideen alorrean, euskara hedatzeko ezinbesteko bektorea osatzen baitute. Euskarazko hedabideen laguntzari dagokionez, EEPk euskal komunikabideentzako kudeaketa-egitura

komertzial bat ezarri du esperimentazio gisa, guztiak Euskal Hedabideak deituriko egituren izanik. Kanalduderi ere laguntza ekarri dio CSArekin hitzarmena lortzeko. Honela "hedatzaile" estatusa du Kanaldudek eta Eskualdearekin Helburu eta Baliabideen Kontratu bat izenpetu du bere hedapenari bultzada nabarmena emateko. Bestalde EEPk hedabide eta ekoizpen audiobisualen arloko zuzenbide arrunteko dispositiboak ikertu ditu, diru-laguntza hauek hobeki erabiltzeko xedearekin.

Argitalpena:

Hizkuntza jardueren Proiektu deialdiaren kari, EEPk euskarazko argitalpenak eta hauen merkaturatzea diruz laguntzeko dispositibo bat sortu du. Halaber, irakurketa publikoaren sareak euskarazko funts bat osatzeko laguntza ere eskaini du, irakurketa publikoan esku hartzen duten beste erakundeekin batean.


II. 2018ko testuingurua: hizkuntza politikaren ingurune berria

2016ko inkesta soziolinguistikoak EEPk 2006an erabaki zuen strategiaren egokitasuna erakusten du, baita euskararen aldeko ekintza irmo baten beharra ere:

2016ko inkesta soziolinguistikoak honakoa erakusten du:

- urte askotan behera egin-eta, euskal hiztunen kopuru absolutua egonkortu da, eta elebidun hartzaileena emendatu da
- azken hamarkadako joera berresten da: gazte elebidunen kopuruak eta proportzioak gora egiten dute
- gizarteak atxikipen azkarra erakusten du: inkestatuen % 93k gizarte elebiduna ikusten du etorkizunean, eta % 60 beren haurren eskolaratze elebidunaren alde dira

Euskal hiztunen tasaren bilakaera adin tarteka 1996 eta 2016 artean



Haatik, euskal hiztunen zatia ttipituz doa, euskararen erabilera ohikoa ere, baina noizbehinkakoa aldiz ez, igotzen da, eta euskaraz mintzatzeko erraztasuna adinarekin ttipitzen da: euskal hiztunek gero eta erraztasun gutiago dute euskaraz mintzatzeko, eta fenomeno hau gazteenengan are azkarragoa da. Hauexek dira, neurri batean, azken hamarkadetan familia transmisioan eman den hausturaren emaitzak. Izan ere, gazte gehienek eskolan soilik ikasten dute euskara. Baina euskararen erabilera mugatuak ere badu zer ikustekorik: gazteek belaunaldi zaharragoek baino gutiago erabiltzen dute euskara egunerokoan. Honela, praktika ezak eta gaitasun urriak elkar elikatzen dute, eta ez modu baikorreen.

Azken inkesta soziolinguistikoaren emaitzek diote euskararen gainbehera ez dela saihestezina eta euskararen aldeko ekintza boluntarista behar-beharrezkoa dela. Inkesta horren arabera ere, egiten diren indarrak segitu eta hedatu behar dira gainbeheraren bukaera bermatzeko, hiztunen kopurua emendatuko lukeen dinamika bat abiatzeko, baita hiztunen hizkuntza gaitasunak hobetu eta hitz egiteko aukerak zabaltzeko, hiztun osoak ekoiztea lortu nahi badugu.

Frantziako Notre legeak eskualde hizkuntzen sustapena eskumen partekatu gisa ematen du:

2015eko Notre Legeak (III Titulua, IV Atala) "eskualde hizkuntzen sustapena" (« promotion des langues régionales ») eskumena ofizial bilakatu zuen eta eskumen partekatua zela ere adierazi zuen.

Honela, 2000 hamarkadako lehen urteetatik aginte publikoek euskararen alde egindako talde-lanak orain legezko koadroa du.

Ipar Euskal Herria 2015-2020 lurralde kontratuarekin, sinatzaileak, bakoitzak bere eskumeneko esparruetan, hizkuntza politikan arduratsu jokatzera engaiatu dira:

Ipar Euskal Herria 2015-2020 lurralde kontratuko 6. ardatzean, "Hizkuntza politikari bultzada berria eman" behar zaiola dio, eta Kontratua sinatu dutenek adierazten dutela hizkuntza politika lurraldearen lehentasun bat dela, eta honen abiadura azkartu behar dela; sinatzaileek hizkuntza politika modu hitzartuan eramanen dela zainduko dute, EEP tresna amankomunaren bidez, 2015eko agorriaren 7ko NOTRe legeak zehaztu dituen eskualde hizkuntzen sustapenaren alde. Sinatzaileek hitz ematen dute EEPri behar diren baliabideak emateko ikerketak egiten dituztela, hizkuntza politika anbiziotsua bidera dezan. Bakoitzak dagokion alorrean hizkuntza politika behar bezala gauzatu dela zainduko du: frantses Estatuak irakasleen formakuntzan eta ikasteen

antolaketa eraginkorrean; Eskualdeak formakuntza profesionalean; Departamenduak, HELEPEk eta Herriek euskararen erabilera eta sustapena herritarrentzako zerbitzuetan.»

EEPren ebaluazio txostenak bere kide guztien engaiamendua eta ardura mantendu behar direla azpimarratu du:¹

« HELEPa IPEan sartzeak ez du erran nahi beste hiru kideen engaiamendua eta ardura apaldu behar direnik, bereziki frantses Estatuarena, berak baitu gehienik euskara diruz laguntzen. Kide bakoitzak hizkuntza politikan esku hartzen segitu behar du, bakoitzak bere alorrean, zuzenbide arrunteko dispositiboak baliatuz, izan irakaskuntzan nola beste alorretan: adibidez Eskualdearen menekoak diren lanbide formakuntza zein Europako funts egituratzaileen kudeaketa. »

Aitzinekoarekin koherentzia atxiki nahian, EEPko kideek 2017ko abenduaren 19an Biltzar Nagusian bildurik, EEPren hizkuntza politika Proiektua eguneratzea erabaki zuten, baita politika horren gauzatzeko moduak eta kide bakoitzaren eginkizunak eta ardurak zehatu ere: frantses Estatu, Eskualdea, Departamendua, Euskal Elkargoa eta EEP.

EEPren 2017ko abenduaren 19ko Biltzar Nagusiak Hizkuntza Politika Proiektua eguneratzea erabaki zuen. Nahiz eta hein handi batean ez zen aldatuko, gertatu diren aldaketak kontuan hartu behar ditu (hizkuntza politikan eman aurrera-pausuak, ekintza esparru berriak edo 2006an kontuan hartu ez zirenak, lege esparruaren eta ingurune instituzionalaren bilakaerak,...). Gauzatzeko moduak ere zehaztea erabaki zuen, bereziki alde batetik EEPko kide bakoitzaren rola eta ardurak identifikatuz eta bestetik EEPk eramanen dituen ekintza eta dispositiboak zehaztuz.

Gisa honetan, EEPko kide bakoitzari dagokio bere eskumeneko arloetan hizkuntza politika garatzea, euskarazko zerbitzuen eskaintza arlo desberdinetan iraunkortzeko eta zuzenbide arrunteko dispositiboak hobeki baliatzeko. EEPk, egundaino egin duenaren haritik, kideen arteko lankidetzan zeharkako zerbitzuak egituratu eta bideratu ditu, euskalgintzako eragileen aldeko diruztatze publikoen osagarritasuna eta koherentzia antolatuko du. Horrekin batean, kideek eskatzen dutenean, laguntza teknikoa ekarriko die eta dispositibo osoaren behaketa/zaintza ere egiten du (ikus EEPren sortze hitzarmenaren 2. artikulua).²

2017ko urtarrilaren 1ean sortu zen Euskal Hirigune Elkargoak hizkuntza politika eskumena hartu eta bere hizkuntza politika proiektua zehaztu du:

2017ko urtarrilaren 1ean sortu denetik Euskal Hirigune Elkargoak lehen urtetik EEPn sartu da herrien blokearen ordezkari gisa, frantses Estatu, Eskualdea eta Departamenduaren ondoan. 2017ko otsailaren 4ko Elkargo Batzordeak hartu zuen "euskararen aldeko hizkuntza politika" eskumen horren erabakia. Erabaki horretan zehaztu zuen "euskararen transmisioa eta sustapena kontuan hartuko zirela elkargoko politiketan eta zerbitzu publikoetan". Halaber, erabakiak "euskararen alde herri eta Herri elkargoekin eraman beharreko ingeniari eta partaidetzak" ere aipatzen ditu "euskara, elkargoko politika eta zerbitzuetan kontuan hartua izan dadin». Euskal Elkargoak bi eskuhartze maila finkatu zituen:


- «alde batetik herri, sindikatu eta/edo herri elkargoek osatzen duten herrien blokeko eskumenetan eragina izanen duen bere hizkuntza politika propioa zehaztera eta gauzatera engaiatzen da. Honela, bideratzen dituen politiketan eta bere funtzionamenduan euskara txertatu beharko du. Herriak eta beren elkargoak lagundu beharko ditu beren politiketan eta funtzionamenduan euskara txertatzen. Euskal Elkargoak biztanleria sentsibilizatzeko ekintzak egiten ditu ere, eta mugaz gaindiko lankidetzak garatuko du.
- Bestalde, EEPren barnean, hizkuntza politika partekatuaren definizioan eta gauzatzean parte hartuko du frantses Estatu, Eskualdea eta Departamenduaren ondoan»

Euskal Hirigune Elkargoak 2018ko ekainaren 23an zehaztu eta onartu zuen euskararen aldeko hizkuntza politika: ikus, « Euskal Hirigune Elkargoaren euskararen aldeko hizkuntza politika».

1. 2016an frantses Barne ministerioak, Kultura eta Komunikazio Ministerioak eta Hezkuntza Nazionala, goi-mailako Irakaskuntza eta Ikerketa Ministerioak egin zuten EEPren ebaluazio txostena

2. EEPk, bere kide bakoitzak dituen eskumenetan eta ardura esparruetan, hizkuntza politika txertatzen duela zaintzeko rola betetzeko ardura du».

III. EEPk daraman hizkuntza politika: helburuak, printzipioak, jardura-esparrua



Bere proiektu estrategikoa zehazteko EEPk honakoak hartzen ditu kontuan:

- 2016an frantses Barne ministerioak, Kultura eta Komunikazio Ministerioak eta Hezkuntza Nazional, goi-mailako irakaskuntza eta ikerketa ministerioak egin zuten **EEPren ebaluazio txostenak** honakoak azpimarratu zituen:
 - o EEP politika publiko partekatua eramateko tresna egokia dela, eta kide bakoitzak bere eskumeneko esparruan hizkuntza politikan esku hartu behar duela zuzenbide arrunteko dispositiboak mobilizatuz
 - o irakaskuntza bidezko transmisioaren aitzinamendua, nahiz eta eskaintza elebiduna sendotzeko beharra dagoen (bereziki oren parekotasuna eta ibilbidearen jarraikortasuna erdietsiz) eta behar diren irakasleak mobilizatzeko eta formatzeko premia,
 - o belaunaldi gazteetan ematen den bultzada sendotzeko beharra eta ikaspenak sendotzeko hizkuntzaren erabilera garatu behar dela, bereziki eskoletako gazteak hunkitzen dituzten jardueretan (kirolak, kultura...)
 - o guzti horrekin helduen euskalduntzea azkartu behar dela, izan formakuntza profesionalean, edo norbanakoen formakuntzan,
 - o frantses kultura eta komunikazio ministerioari ohartaraztea euskarak audiobisual publikoan bizi duen egoeraz, beste eskualde hizkuntza batzuekin alderatuz, eta egoera zuzentzeko baliabideak behar direla
 - o lankidetzarako funts amankomunaren lehentasunak erakustearen beharra, erabaki den strategiaren arabera,
 - o ebaluazioa sakontzeko beharra, bereziki irakaskuntzan (ikasle taldeen jarraipena, hizkuntza mailaren neurketa, jarraikortasun tasa), eta diru-laguntzen esleipenean (diru-laguntzen erabilpena eta ebaluazio kualitatiboak kontrolatzeko urraspideen azkartzea),
- 2006an EEPko kide diren erakundeek adostu zuten **Hizkuntza Politika Proiektuak dokumentu sortzailea izaten segitzen du**. Hori da hain zuzen EEPk oinarritzat hartzen duena 2018an bere jardura-esparrua eta proiektu estrategikoa diseinatzeko. Oraindik gaurkotatzen du, eta 2016ko inkesta soziolinguistikoaren emaitzek hala diote:
 - o Hizkuntza politika Proiektuak finkatu duen helburu nagusia egokia da: «hiztun osoak» hots, euskaraz mintzatzeko gaitasun nahikoa duten hiztunak, eta euskaraz hitz egin ahal izateko ingurune aproposa eta motibazioa
 - o «belaunaldi gazteei» lehentasuna ematearen egokitasuna: hizkuntzaren berreskuratzea gazteenengan ikusten baita
 - o aldi berean transmisioan eta erabileran jardutearen egokitasuna, hiztun osoak ekoizteko, baita erabileraren esparruetan jarduteko beharra ere

Hizkuntza politika eramateko **printzipioak ere berretsi ditu:**

- politika boluntarista
 - eragileen eta hiztunen parte hartze askaeraren errespetua
 - indarrean den lege esparruan
 - politiken arteko koherentzia: hizkuntza politika arlokako politiketan txertatzea
- EEPko kide diren instituzioek Ipar Euskal Herria 2015-2020 lurralde kontratuan berretsi dute bakoitzak bere eskumeneko alorretan hizkuntza politikan parte hartuko duela, bere politika propioetan hizkuntza politika txertatuz eta zuzenbide arrunteko beren dispositiboak mobilizatuz. Borondate horren irudi dira honakoak:
- 2018ko ekainaren 23an Euskal Elkargoko Batzordeak bere hizkuntza politika onartzea,
 - 2011an Pirinio Atlantikoetako Departamenduak hizkuntza politikarako Ekintza Programa onartzea. Programa hau laster eguneratu behar litzateke
 - 2012an Akitania Eskualdeak eskualde hizkuntzen aldeko politika onartzea. Politika hau eguneratzen ari dira orain berean
 - frantses Estatuak hizkuntza politikan hartu duen engeiamendua, bereziki irakaskuntza eta kultura alorretan
- Hizkuntza Politika Proiektu eguneratua mamitua izateko xedea du, bereziki Proiektu eguneratu horretan adostuko diren norabideak lantzeko, bakoitzaren rola zehaztuz. Proiektu eguneratua, gauzatu beharko den politika publikoaren oinarriko marko amankomuna izanen da. Orain dela gutxi abiatu den ariketaren behin-behineko emaitzak eranskinetan den taula batean ikus daitezke. Taula horrek honakoak zehazten ditu:
- euskararen transmisioan eta erabileran eragiteko, arloz-arlo martxan ezarri behar diren ekintzak,
 - EEPk burutu behar duen ekintza, bere kideek daramatzaten ekintzak osatuz eta lagunduz: frantses Estatuak, Eskualdea, Departamendua, CAPB
- Ondorioz, EEPk ez du bere kideen ekimena horien orde egiterik, edota horien eremuetan esku hartzerik beren orde. Aldiz, sortze hitzarmenaren 2. artikuluari jarraikiz, EEPk bere kideen obralaritzari laguntza ekarriko dio, beren eskariz, bakoitzari dagozkion eskumenetan eta ardura esparruetan hizkuntza politika kontuan hartua izan dadin. Gainera, aginte publiko guztien tresna partekatua izanik, zeharkako politika, dispositibo eta tresnak ahalbidetuko ditu bere kideen kontura. Sortze hitzarmenaren 2. artikulua araberak, koherentzia orokorra zainduko du eta politika eta emaitza guztiak segituko ditu.

Gisa honetan, EEP honako alorretan ariko da:

- estrategia partekatua zehazten eta egokitzen:
 - hizkuntza politika alorrean estrategia partekatua zehaztea eta egokitzea: EEPn amankomunean zehaztu Hizkuntza Politika Proiektua, erreferentziazko marko amankomuna izanen dena
 - politika eta tresna berrien egituratzeari buruzko analisia eta hausnarketa
- EEPko kideen obragintzari laguntza ematea, beren eskariz, bakoitzari dagozkion eskumenetan eta ardura esparruetan hizkuntza politika sartzeko,
- kideek partaidetza bidez edota partekatzen dituzten zerbitzu eta dispositiboan egituraketa eta kudeaketa:
 - frantses Hezkuntza Nazionala eta Kolektibitateen arteko hitzarmen dispositiboa animatzea eta bideratzea, EEPri egitura obratzailearen eginkizuna ematen diona (ikus, frantses Hezkuntza Nazionala, Akitania Berria Eskualdea, Pirinio Atlantikoetako Departamendua eta Euskal Hirigune Elkargoaren arteko 2017-2022 Hitzarmen markoaren 3. eranskina, Ipar Euskal Herrian euskararen eta euskarazko irakaskuntza garatze eta egituratzeari buruzkoa) honako gaietan:
 - frantses Estatuaren, tokiko erakundearen eskumenei eta eskumen partekatuei buruzko hitzartzea antolatzea, hitzarmenean adierazi bezala,
 - euskararen eta euskarazko irakaskuntza garapena, kalitatezko irakaskuntza antolaketa eta behar diren laguntza neurriei buruzko norabideak diseinua eta proposatzea
 - adostutako politika gauzatzen laguntzea, frantses Estatuak eta kolektibitateek beren eskumen eta ardurazko esparruetan egiten dutena sostengatzeko.

Oroitarazten da:

- frantses Estatuak eskola eta irakaskuntza kartaren eskumena atxikitzen duela, sail elebidunak idekitzeko, irakasle lan-postuak sortzeko, eta lehen edota bigarren mailako irakasleak kontratatzeko konkurtsoetan lekuak irekitzeko hautuetarako. Tokiko erakundeek ardura duten esparruen eskumena izaten segitzen dute.
 - hitzarmenak aipatzen duen elkarraditze a, EEPk du antolatzen, eskola karta eta irakaskuntzaren antolaketari buruzko frantses hezkuntza nazionalak berezkoak dituen elkarraditze guneei (CDEN, komite teknikoa, CAP) edo berak kudeatzen dituen lankidetzak hitzarmenei (CALR, "euskara" departamenduko lantaldea, zeintzutan EEPk parte hartzen duen) oztoporik eragin gabe
 - aginte publiko maila desberdinak hunkitzen dituzten zeharkako partaidetza dispositiboan antolaketak eta animazioa: Leha haurtzaindegien labeltzea, euskara gaitasunaren egiaztapena, eta abar.
 - hizkuntza politikan diharduten eragile publiko guztientzako erabilgarriak izan daitezkeen laguntza funtzioen sortzea eta kudeatzea: hizkuntza politikarentzako estrategikoak diren lanbideetarako giza baliabide kopurua emendatzeko ekimenak (oinarrizko formakuntza, formakuntza jarraikia, langabetuen formakuntza, diplomen baliokidetzak...), ikasmateriala, euskararen kalitateari buruzko dispositibo eta partaidetzak (hizkuntza gaitasun egiaztatze dispositiboak, hizkuntza baliabideak eta tresnak, sareko *Nola Erran* frantsesa-euskara hiztegia, eta abar)
 - eragile pribatuak euskara beren jardunean txertatzera laguntzea (enpresak, saltokiak eta pertsonentzako zerbitzuak, kirol eta kultur elkarteak...) baita eragile publiko eta para-publikoak ere, instituzio bakar batenak ez diren eskumen-esparruetan
- hizkuntza jarduera egituratzen duten eragileen laguntzea:
 - hizkuntza jardueran diharduten eragile egituratzaileen diruztatzea, EEP eta Eusko Jaurlaritzaren arteko funts amankomunaren bidez, beste erakundeek, bakoitzak bere eskumen-esparruan eraman ditzakeen ekintzekin koherentzian, eta beste eragileen egitasmo eta ekimenak laguntzea
 - ↳ horretarako EEPk bere diru-eskuhartze moduak berrikusiko ditu, emaitzak neurtu eta palanka eragina hobetzeko
 - hizkuntza jarduera egituratzen duten eragileen egituraketa, profesionalizazioa eta sendotzea, jadanik existitzen diren zuzenbide arrunteko diruztatze dispositiboak erabiliz,
 - kide bakoitzaren eskumen-esparruetan hizkuntza politika garatzen dela behatzea eta zaintzea, ezarri diren politiken ebaluazioa, egoera soziolinguistikoaren behatokia

Ondotik zehazten da, arloz-arlo, EEPren eskuhartze eremua, hizkuntza politikaren hiru erronka multzoak kontuan hartuz:

- euskararen **transmisioa** garatzea
- euskararen **erabilera** garatzea
- euskararen transmisioaren eta erabileraren arrakasta baldintza **ditzaketen zeharkako arlo eta laguntza funtzioen** aldi berean egituratzea

Ohartarazten da ondorengo 1/ eta 2/ puntuetan erabiliko den "elebidun edo euskarazko" aipamena familiekiko komunikazio elebidunari dagokiola.

1/ Euskararen transmisioa garatzea

Hiru kate-begi osagarri identifikatu dira euskara belaunaldi gazteei transmititzeko: familia, haur gazteen harrera eta irakaskuntza.

Belaunaldien arteko transmisioaren osagarri gisa, helduen euskalduntzea euskararen transmisioaren erronka osatzera heldu da.

Irakaskuntza:

EEPrentzat lehentasunezko arloa izaten segitzen du. Izan ere, aurreko hamarkadetan familia-transmisioan haustura gertatu denetik, euskararen eta euskarazko irakaskuntza, belaunaldi gazteei euskara transmititzeko

tresna nagusia bilakatu da. Gainera, irakaskuntza derrigorrezkoa denez, ikasle guztiak hunkitzeko aukera ematen du.

Helburua, euskarazko eta euskararen irakaskuntza eskaintza garatzea da, ama-eskolatik lizeoraino lurralde osoan eskuragai izan dadin, eta irakaskuntza hori kalitatezkoa eta eraginkorra izatea. Horretarako behar diren giza eta pedagogia baliabideak ezarriz.

EEP frantses hezkuntza nazionalaren eta kolektibitateen arteko elkarraditze dispositiboko egitura obratzailea denez, kalitatezko irakaskuntza eskaintza garatzeko dispositiboaren erdian kokatzen da. Elkarraditze dispositiboa finkatzen duen hitzarmenaren arabera, honakoak dira EEPren zereginak:

- elkarraditze dispositiboa animatzea, eta segitzea, EEPren Biltzar Nagusian
- irakaskuntzaren eskaintza garatzea, familia orok eskuragai izan dezan, irakaskuntza publikoan arreta berezia ezarriz, hor baitira ikasle gehienak eskolatuak (egingarritasun ikerketak, sailak irekitzeko proposamenak)
- euskarazko eta euskararen irakaskuntzaren kalitatezko egituraketan laguntzea:
 - o oren parekotasunean diren sailetan: murgiltze ereduaren esperimentazioak garatuz, bigarren mailan oren parekotasuna helburu...
 - o hiru sailetan: hizkuntza gaitasunaren egiaztapena
- euskara transmititzeko duten eginkizunean talde pedagogikoak laguntzea, diru-laguntzak emanez ikasleek euskara kurtsoetatik harago erabil dezaten. EEPk sailen arteko oreka zaindu beharko du diruztatzean, euskaraz eskolatuak diren ikasle kopuru erlatiboaren arabera
- euskarazko eta euskararen irakasle eta irakaslegaien harrobia sendotzeko politiketan parte hartzea, bereziki jadanik titularrak diren irakasleei eta konkurtsora aurkezten direnei formakuntza eskainiz, frantses Hezkuntza nazionala eta Unibertsitateekin lankidetzan
- familienganako sentsibilizazio eta informazio ekintzak eramatea, irakaskuntza elebidunaz eta eredu hori ama-eskolatik lizeoraino jarraitzeaz
- beharrezkoa den ikasmaterialaren ekoizpena laguntzea, Ikasen eskutik
- Seaska, frantses Hezkuntza Nazionala eta EEPren arteko hitzarmen-markoa animatzea
- irakaskuntza elebidunean diren ikastetxeetan elebitasunaren garapena ahalbidetzea (langileen formakuntza, seinaletika, informazio eta komunikazio euskarriak,...) ikasteen eta ingurunearen arteko koherentzia lortzeko: EEP, bere kideek irakaskuntza publikoan egiten dituzten ekintzen osagarritasunean jardungo du, bere kideek eskatuz gero laguntza eskainiz, eta boluntarioak diren sare katolikoko ikastetxeak lagunduz Irakaskuntza Katolikoko Elizbarrutiko Zuzendaritzarekin harremanean
- eramaten den politikaren jarraipena eta ebaluazioa segurtatzea, kalitate eta kopuru mailan adierazle sistema ezarriz: ikasle taldeen jarraipena, elebidunean ematen den jarraikortasun tasa, hizkuntza gaitasunaren ebaluazioa...
- guraso elkarteekin hitzartze esparru bat antolatzea

Lehen haurtzaroko harrera:

Euskararen familiako transmisioa higitzen ari den honetan, haurren harrera, elebiduna ala euskarazkoa, hala haurtzaindegietan nola etxe haurtzainekin, osoki aktibatu beharreko eskola aitzineko euskara transmisioaren kate-begia da. Adin horretan, mintzamenaren adinean, baitute haurrek hizkuntza naturalki barnatzeko unerik hobena. Transmittitzaile rolaz haratago, lehen haurtzaroko harrerak, euskarazkoak edo elebidunak, geroko eskolaratze elebiduna errazten du.

Helburua da, lehen haurtzaroko harrera kolektibo edo etxekoa, lurralde osoan egituratzea, haurtzaindegi eta etxe haurtzainekin.

Lehen haurtzaroko harrera kolektiboari dagokienez, Euskal Elkargoa hauen animazioaz arduratuko den aldi berean (haurtzaindegien kudeatzaileak eta egitasmodunak informatzeaz eta akuilatzeaz, haurtzaindegi kudeatzaileak label eskaera egiten laguntzeaz eta laguntza plan bat ezartzeaz), EEPk bere aldetik honakoak egiten ditu:

- EEP, FaLK, MSA, Departamendua eta laster Euskal Elkargoa batzen dituen Leha labeltze dispositiboa gidatzen eta animatzen segitzea: labelen Batzordea animatzea, haurtzaindegien labeltzearen diagnostikoa, hitzarmenezko dispositiboaren ebaluazioa eta eraberritzea beste partaideekin batean
- jadanik abiatua den diruztatze-partekatua 2018an segitzea (lehen hitzarmenak % 50ean eta 2015etik aitzinerakoak heren batean), eta EEPk bere kideen eskumen-esparruetan egiten dituen diruztatze-partekatuak elkarren artean berriz zehaztea

Lehen haurtzaroko familiako harrerari dagokienez, EEPk honakoak egiten ditu:

- Departamenduari Obragintzan laguntza eskaintzea, honen eskariz, etxe haurtzainen borondatezko hizkuntza gaitasunaren egiaztapena ezartzeko, eta euskarazko eskaintza hori ezagutzera emateko
- Departamenduarekin etxe haurtzainak euskarara formatzen akuilatzeak aukera aztertzea

- etxe hartzain lanbidea euskaldunen artean sustatzea

Etxe hartzainak Etxe Hartzainen Etxeetan (MAM) antolatuak direlarik, EEPk:

- partaideekin (FaLK, MSA, Departamendua, Euskal Elkargoa) Leha dispositiboa MAMetara hedatzeko aukera eta egingarritasuna ikertzea
- testuinguru horretan, MAMak harrera elebiduna edo euskarazkoa egituratzen laguntzeko baldintzak definitzea

Zeharkakotasunean, EEPk euskaldunen harrobia handitzeko lanean segituko du:

- hartzain izateko formakuntza elebidunak garatuz,
- lehen hartzazoran lanean aritzeko formakuntza duten langabetuei, euskarazko formakuntza trinkoak antolatzeko laguntza tekniko eskainiz, Eskualdea eta AEKrekin (ikus formakuntza profesionala), formakuntza horiekin langabetuek lan aurkitzeko eta lanbideratzeko aukera hobeak dituztelako

Familia transmisioa:

Inkesta soziolinguistikoak erakutsi du familia transmisioa gora abiatu dela, baina joera sendotu behar da. Hizkuntzaren biziberritze orok ezinbestekoa duen transmisio kate-begia da.

Erronka da gurasoek hizkuntzaren transmisioan duten rola betetzea, zuzenean ahal badute eta bestenez transmisiorako beste baliabideak erabiliz. Gurasoek hizkuntza transmititzeari dagokionez, komenigarri izanen da:

- sortu-berrien gurasoenganako sentsibilizazioa segitzea kolektibitateekin lankidetzan
- guraso euskaldunek beren haurrei euskara transmititzera edo ez transmititzera eramaten dituzten arrazoiak ikertzea, guraso euskaldunek euskara gehiago transmiti dezaten

Helduen norbanako euskalduntzea:

Euskara belaunaldiz-belaunaldi transmititzeaz gain, norbanakoen euskalduntzea ere garrantzitsua da, EEPren ebaluazio txostenak adierazten duen gisan, bereziki belaunaldi erdaldunenak hunkitzen dituelako, hots familia transmisioaz eta euskarazko irakaskuntzaz gutien baliatu ahal izan direnak, eta Euskal Herri kanpotik edo ingurune ez euskaldunetik etorri eta euskara ikasi nahi dutenak. Helduen euskalduntzea erronka estrategikoa da hizkuntza politikan, ezen ingurune euskalduna osatzen laguntzen baitu eta honek gazteei buruz egin indarrak sendotzen laguntzen baitu. Honela, sail elebidunetako haurrak heldu euskaldunak dauden ingurune batean kokatuko dira; "segitu beharreko" eredu bat izanen dute; heldu horiekin identifikatuko dira.

Helburua da helduen euskalduntzea ahalbidetzea, formakuntza eskaintza eskuragarria egituratuz eta helduen banakako euskalduntzea sustatuz.

Ondorioz, eragileei ematen dien diru laguntzaz harago, EEPk honakoak egin beharko ditu:

- EEPko kide eta eragileekin lankidetzan aritzea, maila guztietan eta guztientzako eskuragarri izanen den kalitatezko formakuntza eskaintza osoa egituratzeko politika publikoen esparrua zehatzuz: lurraldearen estaldura, ikasgelako irakaskuntza eta urrunekoaren eskaintza osoa, tarifa erakargarriak, lokal publikoak eskura ezarriz, formatzaileak formatuz, ikasleak segituz, informazio eta sentsibilizazioa, eragileak diruz laguntzeko modalitateak, ikasmateriala...
- anartean, eragileak laguntzen segitzea, helduen norbanako euskalduntzea eskaintzen duten eragileentzako dirulaguntzak emanez EEP/Eusko Jaurlaritza funts amankomunetik, eta eragileak profesionalizatuz, egituratuz eta sendotuz

2/ Euskararen erabilera garatzea

Ezinbestekoa da, aldi berean, euskararen transmisioan eta erabileran jardutea. Izan ere, erabilera ezinbesteko urratsa da ikaste prozesuan. Aldi berean, motibazioa atxikitze baldintza baita, ere.

EEPre 2010eko ebaluazio txostenak zioen bezala, "hizkuntza ahuldu guztien biziberritze prozesuan ikastetik erabiltzera pasatzea erabakigarria da [...] hizkuntza bat ikasteak ez du bermatzen hizkuntza luzaroan, egunerokoan eta bizi sozialean barneratuko dela, ikasleak bere ingurunean ez badu estimulatzeko elementu aski." "Euskara bizitza sozialean erabiltzea ez da bermatua. Helburua da euskara ikasi duen batek euskaraz mintzatzeko aukerak ukaitea bai, baina are gehiago mintzatzeko gogoia ere».

Bestalde, 2010eko ebaluazio txostenak azpimarratzen zuen "eremu behartuak baino, eremu atseginak lehenetsi behar direla (elkarteak, aisialdiak, kirolak, eta abar), eta ekintza horiek gazteak bereziki, baina besteak ere, hunkituko lituzketela". Era berean, 2016ko ebaluazio txostenak honako erronka behinena

azpimarratzen du: eskolan euskara ikasten dutenek, kurtsoez haratago, alegia eremu atseginetan ez eta behartuetan, euskara erabiltzeko motibazio handiagoa izatea.

Honela, haur eta gazteengan eragin zuzena izan dezaketen erabilera eremuetan arreta berezia ezarri beharko litzateke: aisialdi antolatutak (bilguneak, egonaldiak), arte eta kultura heziketa, arte irakaskuntza, kirol jarduerak, argitalpena, irakurketa publikoa, hedabideak, Internet, bideo-jokoak. Arlo hauetan lan gehiago egin behar da, eskolaz kanpoko lekuetan erabilera ludikoa egituratuz. Honela lortuko baita euskararen erabilera areagotzea, baita hizkuntza gaitasuna eta erabiltzeko motibazioa ere.

Alabaina, euskararen erabilera garatzeko politika ez da soilik haur eta gazteen arloetara mugatu behar. Izatez, hizkuntza garatzeko ingurune erakargarri eta baikorra behar da euskaldunak eta euskaldungaiak motibatuz. Hizkuntzak ingurunean hor egon behar du, eta balioetsia ere (seinaletika, komunikazio euskarriak...). Egiak erabilia izan behar du haurrek eskolatik kanpo euskara entzun dezaten, bestenaz ikasteak ez baitu harentzat zentzurik izanen. Hizkuntza ikustera ematea, hizkuntza paisaian txertatzea eta bere erabilera gizartean garatzea helburu estrategikoak dira. Beraz, euskararen presentziak, honen ikusgarritasunak eta erabilerak, euskararen aldeko politika publikoaren kezka nagusia izaten segitu behar dute.

2/1 - Haur eta gazteengan eragin zuzena duten erabilera eremuak garatzea

Aisialdi bilguneak:

Helburua da taldeko aisialdien harrera eskaintza elebidun edo euskalduna garatzea (AGAZ, egonaldiak, jarduerak...).

Aisialdi guneak Euskal Elkargoaren hizkuntza politikaren eskuhartze esparrua baitira, EEP Euskal Elkargoaren eta herrien ekintza osatzera joanen da. Honela, EEPk honakoak egingen ditu:

- 2018an AGAZen esperimentazio dispositiboaren elementu guztiak Euskal Elkargoari ematea, honek segida har dezan
- Uda Leku laguntzen segitzea:
 - o profesionalizazioa lagunduz, Euskal Elkargoarekin batean
 - o Euskal Elkargoarekin zuzenbide arrunteko diruztatze dispositiboa hobeki erabiltzeko elkarraditze lan bat eramatea, Uda Lekuk betetzen duen aisialdi harrerarako
 - o EEP/Eusko Jaurilaritza funts amankomunarekin, euskarazko aisialdi harrera betetzen duen Uda Leku diruz laguntzea, aisialdi guneetarako zuzenbide arrunteko diru-laguntzen osagarri gisa
- euskarazko mugaz gaindiko egonaldi eskaintza egituratzea sail elebidunetako ikasleentzat, EAE eta Nafarroarekin
- euskarazko aisialdi eskaintza garatzeko behar diren antolaketa eta laguntza funtzioak betetzen laguntzea (begiraleen formakuntza, ikasmateriala, hizkuntza gaitasunaren egiaztapena)

Kirolak:

Helburua da gazteentzako kirol jarduera eskaintza elebidun edo euskalduna garatzea.

EEPk hizkuntza politikarentzat estrategikoa den lan hau abiatu beharko du:

- arlo horren diagnostikoa egitea, eskuhartze eraginkorrenak eta lehenbaitzako itzak definitzeko, horretan ari diren eragile eta partaideekin
- eragileak (elkarteak, clubak,...) kirol jarduera eskaintza elebidun edo euskalduna egituratzen laguntzea

Arte eta kultura heziketa:

Helburua da euskarazko arte eta kultura heziketa ama-eskolatik lizeoraino egituratzea.

Arlo hau EEPko kideen eskumena denez, EEP, Euskal Elkargoa eta herrien, Departamendua eta Eskualdearen ekintza osatzera joanen da eskola, kolegio eta lizeo elebidunetako ikasleei begira. Honela, EEPk honakoak egingen ditu:

- proiektu sustatzaile diren kideak laguntzea, hauen eskariz, beren arloetan garatzen duten arte eta kultura irakaskuntzan euskarazko eskaintza egituratzeko,
- ama-eskolatik lizeorako eskaintza elebidun edo euskarazkoaren koherentzia eta osotasuna zaintzea, baita eskola eta eskola ondoko denboren arteko osagarritasuna ere

- euskarazko arte eta kultura heziketaren eskaintza garatzeko behar diren antolaketa eta laguntza funtzioak betetzen laguntzea, bereziki eragile pribatuak euskarazko arte eta kultura heziketa egituratzen eta ezagutarazten lagunduz

Arte irakaskuntza:

Helburua da, jadanik existitzen den eta eragileek betetzen duten arte irakaskuntza eskaintzan, euskarazko eskaintza egituratzea.

Hau nagusiki Euskal Elkargoaren hizkuntza politikaren eskuhartze esparruan kokatzen da, baita Departamenduarenean ere, honek eragile pribatuen sarea animatzen baitu. EEPren jarduera Euskal Elkargoarena eta Departamenduarena osatzera joanen da. Honela, EEPk honakoak eginen ditu:

- proiektu sustatzaile diren kideak laguntzea, hauen eskariz, beren arloetan garatzen duten arte irakaskuntzan eskaintza elebidun edo euskarazkoa egituratzeko,
- euskarazko arte irakaskuntza eskaintza garatzeko, behar diren antolaketa eta laguntza funtzioak betetzen laguntzea, kideek arlo honetan burutzen dituzten ekintzen osagarri gisa

Argitalpena

Liburuaren ekonomia:

Erronka euskarazko eskaintza editoriala egituratzea sustatzea da, liburuaren sektorea osoki kontuan hartuz egiletik liburu saltegiataraino, eta liburuaren katean dauden katebegi guztietan eraginez (sorkuntza, argitalpena, merkaturatzea, sustapena). Horretarako, eskuduntza duten erakundeekin lankidetzan, zuzenbide komuneko mekanismoak mobilizatu beharko dira, batez ere Estatuaren, Eskualdeen eta CNL-ren artean sinatua den liburu-sektoreko kontratua eta, behar izanez gero, dispositibo osagarriak antolatzen ahalko dira.

Irakurketa publikoa:

Helburua da euskarazko argitalpen eskaintza irakurketa publikoaren sarean txertatzea eta balioestea.

2014an ekintza programa partekatua osatu zen, Departamenduaren gidaritzan pean eta EEPren laguntzarekin, eta eragile guztiak inplikatu. Horretan, EEPk partaidetza dispositiboan parte hartzen du beste erakundeen osagarri gisa, argitalpen funtsen osatzea lagunduz irakurketa publikoko sarearen bidez.

Euskal Elkargoak, kultur eragile pribatu eta publikoen laguntzea bere hizkuntza politikan sartu du, herri edo herri elkargo mailan zerbitzu publikoa eskaintzen dutenean, hala nola mediatekak, elebitasuna beren ekintzetan txerta dezaten. Mediatekek euskarazko funtsa osa dezaten, laguntza ere eskaintzen die. Honela, EEPk honakoak eginen ditu:

- Departamenduak gidatzen duen partaidetza dispositiboan parte hartzea, eta Departamenduak eskatzen duenean laguntza ematea

Hedabideak eta digitala:

Ikus geroago.

2/2 - Euskarari gizartean egiazko lekua emanen dion ingurunea garatzea, ekintza egituratzaileenak lehenetsiz

Hedabideak eta digitala:

Hedabideak euskararen hedapenerako ezinbesteko bektorea dira publiko orokorarentzat, baina bereziki gazteentzat. Gisa horretan, hizkuntza antolamenduaren arlo saihestezina osatzen dute.

Erronka da euskarazko komunikabide eskaintza osoa eta kalitatezkoa garatzea.

Aginte publiko desberdinen artean partekatua den arlo honetan EEPren rola erdigunekoa da. 2017an abiatu ekintzaren ildotik, honakoetan segituko du:

- euskarak hedabide publikoetan duen lekua garatzen, EEPko kideak gai honen inguruan gehiago mobilizatuz
- hedabideen diruztatzeko zuzenbide arrunteko dispositiboak ikertzen, euskal hedabideak dispositibo horiek ahal bezain ongi erabiltzen lagunduz:
 - o hori dela eta, Kanaldude web-telebistak CSArekin duen hitzarmena eta Eskualdearekin duen Helburu eta Baliabide Kontratua betetzen laguntzen

- euskarazko komunikabideak elkartzen dituen Euskal Hedabideak elkarteak laguntzen, publizitate konpainia gauzatzen, bere diru iturriak anizteko xedearekin, eta administrazio, teknika, giza baliabide, formakuntza eta abarretan elkarlanean aritzen eta mutualizatzen laguntzeko...
- euskarazko komunikabideei diru-laguntza gehigarri bat ekartzen EEP/Eusko Jaurlaritza funts amankomunaren bidez
- zer ikustekorik duten partaideekin (Eskualdea, KAEZ, EKE,...) euskarazko ikus-entzunezko ekoizpen sail bat egituratzen laguntzen, bereziki zuzenbide arrunteko dispositiboak erabiliz
- EITB Ipar Euskal Herrian hedatzen, EITB taldearekiko partaidetza, eta ETB1 eta ETB3 (gazteria katea) satelite bidezko hedapena kudeatzen
- komunikabide desberdinen ikusentzulegoa jarraitzen eta analizatzen, eta arlo horretan ematen diren etengabeko bilakaeren behaketa bermatzen

Internet: hizkuntza politikarentzat, euskara Interneten egotea helburu estrategikoa da, biztanlerian eta bereziki gazteengan duen eragina ikusirik.

Erronka da beraz euskarazko edukiak Interneten bermatzea, eta euskara Interneten ibiltzeko hizkuntza gisa bultzatzea.

EEPk kezka hori Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuarekin duen lankidetzan sartua du, haiek jadanik halako politikak bidean dituztelako. Honela, EEPk honakoak egiten ditu:

- existitzen diren edukiei begira, Eusko Jaurlaritzak daraman politikari begira, eta dauden hutsuneak kontuan hartuz, garatu beharreko edukiak zeintzuk diren zehaztea
- Interneten euskaraz gehiago jarduteko estrategia zehaztea, arlo horretako eragileen laguntzarekin, Wikimediak bezala

Bideo-jokoak belaunaldi gazteek euskararen erabilpen ludikoa garatzeko tresnak dira.

Erronka da euskarazko eskaintza garatzea eta eskura ezartzea. EEPk honakoak egiten ditu:

- lehenik arlo horren diagnostiko bat: dagoen eskaintza, hedatua den eskaintza, hutsuneak aurkitzea, existitzen diren zuzenbide arrunteko laguntza dispositiboak...
- hortik abiatuz, alor horretan esku hartzeko estrategia zehaztea, zuzenbide arrunteko dispositiboak mobilizatuz eta eremuko eragile eta operadoreen laguntzarekin, bereziki mugaz beste aldekoekin

Bizitza sozialeko eragileak:

Hauek dira publikoari harrera edo zerbitzua eskaintzen diotenak. Hori dela-eta, euskararen presentzia eta ikusgarritasunaren balizko eremua osatzen dute hainbat arlotan: garraioak, osasuna eta gizarte ekintza, museoak, saltokiak eta pertsonentzako zerbitzuak, beste eragile nagusiak... Biztanlerian eragin albat handiena (frekuentazioa, eta eguneroko saltoki eta zerbitzuak) izan dezaketen eragileengana jo beharko da.

EEPrek ekintza bere kideena osatzera joanen da, bereziki Euskal Elkargoak bere eskumeneko eragileengan bideratuko dituen ekintzei kasu eginez. Honela, EEP honakoez arduratuko da:

- erakundeetako eta erakundeez haraindiko operadoreak laguntzeaz (seinaletika, komunikazio euskarriak, erabiltzaileentzako zerbitzuak...):
 - herriez haraindiko museoak
 - erakundeen artean partekatutako edo pribatuak kudeatu garraio zerbitzuetako ekipamenduak (aireportuak, tren geltokiak, autobideak...)
 - ospitaleak, klinikak eta osasun alorreko beste operadoreak
 - beste operadore nagusiak
- EEPk bere kide diren proiektu sustatzaileak lagunduko ditu, hauen eskariz, beren eskumenekoak diren operadoreentzat
- pertsonentzako zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa, saltoki eta zerbitzu pribatuak elebitasunaren bidean laguntzeaz (seinaletika, komunikazio euskarriak, bezeroekiko harremana), hala zuzenean nola hitzarmenezko partaidetza estrategikoen bidez
- behar diren laguntza funtzioak egituratzeaz:
 - egin diren itzulpenen hizkuntza baieztapena bermatzea, hizkuntza kalitatea bermatzeko helburuarekin (ikus 3/ko Baieztapena eta hizkuntza baliabideak)
 - giza-baliabide euskalduna garatzeko lanean segitzeaz: jatorriko formakuntzetan eskaintza elebiduna garatzea, zer ikustekorik duten eragileekin adosturik eta osagarritasunean (adib. Eskualdeko osasun zerbitzuak osasun eta gizarte lanbideetarako formakuntzetan daraman ekintza), eta langile boluntarioen formakuntza planak gauzatzeko laguntza
 - saltokietan eta pertsonentzako zerbitzuetan euskararen erabilera erraztuko duten tresnak sortzea eta eskura ezartzea: komunikazio euskarriak, lexikoak, itzulpen datu baseak...
- operadoreak elebitasuna garatzearen aldeko urraspidean sartzera sentsibilizatzea

3/ Aldi berean, euskararen transmisio eta erabileraren erronkak baldintzatzen dituzten funtzioen egituratzea

Euskarazko formakuntza profesionala:

Euskarazko formakuntza profesionala gai estrategikoa da hizkuntza politikarentzat. Izan ere, politika guztiek euskarazko formakuntza profesionalaren beharra baitute, ezen zerbitzu elebidunak antolatzeko langile elebidunak behar baitira. EEPren 2016ko ebaluazio txostenean agertzen den gisan, "helduen euskalduntzea biziki garrantzitsua da, biztanleriaren erdiguneko adin-tarteak hunkitzen baititu, hots euskaldun gutien dutenak bai irakaskuntzaren, baita EEPk euskarazko eskaintza sustatzen duen hainbat jardueretako beharrei ihardesteko; lehen haurtzarotik, zerbitzu publiko eta hedabideetara. Irakaskuntza bidezko transmisioa ukan duten belaunaldi gazteek lekukoa hartu artean, formakuntza profesionala eta norbanakoen euskalduntzea ezinbestekoak dira, EEPk jadanik egin duenaz haratago.» Euskalduntzeko, formakuntza profesionala sustatu behar da, pertsonen lan aukera gehiago ematen dielako eta lanbideratzeko aukera gehiago ere.

2007tik, EEPk langile publiko eta pribatuen euskarazko formakuntza profesionala antolatzen lagundu du teknika eta finantza aldetik, ezen hizkuntza politika lurraldera hedatzen den heinean beharrak gero eta handiagoak baitira: 2004an 72 langile ziren formakuntzan, eta 2017an 225 langile. Aldi oro zuzenbide arrunteko diruztatzeak mobilizatzen saiatzen da, eta subsidiaritate printzipioa erabiltzen da, izan OPCA edo CNFPTrekin. Azken aldian irakasle eta irakaslegaien euskararako formakuntza oso estrategikoa agertu da. Izan ere, euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garapenak eta egituraketak irakasle euskaldunen beharra handitzen baitu. Frantses Hezkuntza Nazionala/Unibertsitateak/EEPre arteko lankidetzak abiatu da gai hau lantzeko (Ikus Irakaskuntza).

Orain arte bezala, EEPren jarduera, formakuntza eginen duten langileen enplegatzaileen ekimena laguntzeko eta osatzeko egina da, formakuntza eta formakuntzarako zuzenbide arrunteko dispositiboak alaitz ongi baliatzeko. Honela, EEPk:

- euskara formakuntza, zuzenbide arrunteko dispositiboetan ahal bezain ongi laguntzeko lana eramanen du (CNFPT, OPCA), Euskal Elkargoa, Departamendua eta Eskualdearekin loturan
- EEPk bermatzen dituen diruztatze partekatuak eguneratuko eta berriz definituko ditu kideekin elkar adituz, kideen langileentzako euskara formakuntzari dagokionez
- anartean, bidean diren formakuntza dispositiboentzako laguntza teknikoa edo/eta diruztatzea segituko du 2018an:
 - o irakasle eta irakaslegaien formakuntzarentzako laguntza tekniko eta diruztatzea (Ikus Irakaskuntza)
 - o herrien blokeko eskumenekoak diren langileen formakuntza planak diruz laguntzea (haurtzaindegien laguntza plana, herrien hobekuntza kontratuak, beste langileen formakuntza planak) eta hauen jarraipen eta ebaluazioan parte hartzea
 - o Eskualdeak diruztatzen dituen langabetuentzako formakuntzak antolatzeko, laguntza teknikoa, Eskualdea eta AEKrekin batean

Euskara gaitasunaren egiaztapena:

Euskara ikasi edo ikasten ari diren 16 urtetik gorakoei aukera ematen die beren hizkuntza heina egiaztatze eta bide batez beren gaitasuna balioesteko. Enplegatzaileei ere langile eta langilegaien hizkuntza gaitasuna ezagutzeko aukera ematen die. Ondorioz, hizkuntza gaitasunaren egiaztapena ezinbestekoa da euskara transmititzeko sistema eraginkorra egituratu nahi bada. Horregatik Hizkuntza Politika Proiektuak hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuarekin (EEMB) bat egiten duen egiaztapena eta mugaz beste aldean indarrean den egiaztapenekiko baliokidetzak sistema bat ezartzeko helburua finkatu zuen.

2008an EEPk, unibertsitateekin duen lankidetzaren kari, EEMBa oinarritzat hartzen duen Euskara Gaitasuna Egiaztatze Dispositiboa sortu zuen. Gaur egun 2 maila egiaztatzen dira: C1 2009tik eta B1 2015etik. Baliokidetzak EAE eta Nafarroarekin eman da C1 mailarentzat (gubernuen 2010eko maiatzaren 10eko eta azaroaren 9ko dekretuak), eta B1 mailarena bidean da. Formakuntza profesionalari buruzko legea aldatu denetik, EEPk C1 eta B1 egiaztapenak Frantziako Lanbide Egiaztapenen Batzorde Nazionalaren Inbentarioan eta Formakuntzarako Kontu Pertsonalarekin baliokidetzak daitezkeen lanbide formakuntzen eskualdeetako zerrendan sartu ditu. Hau da hain zuzen formakuntzarako zuzenbide arrunteko diruztatzeak mobilizatzeko baldintza.

Ildo horri eutsiz, EEPk:

- EEP eta Unibertsitateen arteko egiaztapen dispositiboa gidatu eta animatuko du

- eperik laburreneta B2 mailarako agiria sortuko du, lehentasunez murgiltze ereduko eta sail elebidunetako ikasleentzat, eta berantago B1 eta C1 egiaztapenak ezarriz jadanik existitzen direnak egokituz
- Batzorde zientifikoaren lanak antolatuko ditu
- 2 azterketa saio antolatuko ditu: urtean 2 saio C1 mailarentzat, eta bakar bat B1 mailarentzat,
- EAEn eta Nafarroan indarrean dauden egiaztapenekin baliokidetzat bermatuko du
- egiaztapenak frantses lanbide egiaztapenen Inbentarioan eta eskualdeko zerrendetan izendatzea eraberrituko du

Hizkuntza baieztapena eta baliabideak:

Elebitasuna garatzeko gauza anitz itzuli behar de frantsesetik euskarara: errepide seinaleak, seinaletika, komunikazio euskarriak, formularioak, gaikako lexikoak... Egiten diren itzulpenen kalitatea bermatzeko, eta orain arte euskara sartzen ez zen arlo berriak jorratzen baitira, EEPk hizkuntza baieztapen zerbitzua ezarri du, Euskaltzaindiaren laguntzarekin toponimia edo Ikas pedagogia zentroak burutzen duen ikasmaterialgintzarentzat, eta aditu sare baten laguntzarekin frantsesetik euskararako itzulpenak baieztatuko. Zerbitzua lehenik lehenik eremu publikoan era iraunkorrean ikusgarri egonen diren edukientzat egin da. Zerbitzuaren hartzaileak EEPko kideak edota euskaraz lanean ari edo elebitasuna garatzeko bidean dauden eragileak dira: hedabideak, departamenduko artxiboak, osasungintza, saltokiak, saltoki handiak...

Zerbitzu honek EEPren laguntza duten eragileei itzulpenerako laguntza ere ematen die.

Gainera, zerbitzu hau guztien eskura dauden hainbat tresna eta baliabidez aberastua da: Nola Erran hiztegia, gaikako lexikoak, dokumentu elebidun baieztatuen ereduak...

Jadanik egin duenari eutsiz, EEPk honakoak eginen ditu:

- hizkuntza baieztapen dispositiboaren antolatzea eta animatzea, hizkuntza politikan sartuak diren eragileen zerbitzurako
- Euskaltzaindiarekin lankidetzat obratuz:
 - o Euskaltzaindiarekilako hitzarmenezko dispositiboa animatzea: Euskaltzaindiak hizkuntzaren kalitatearentzat lagunduko du (EEP/EJ proiektu deialdien argitalpenen hizkuntza kalitatea, toponimoen balioespena...)
 - o Euskaltzaindia diruz laguntzea
- hizkuntz tresna eta baliabideak eskura ezartzen segitzea:
 - o egindako baieztapenen datu basea antolatzea eta eskura ezartzea
 - o Nola Erran frantsesa-euskara hiztegiaren ustiapena eta eskuragarritasuna bermatzea
 - o gaikako lexikoak sortzea eta eskura ezartzea, Euskal Elkargoa eta Hiriekin lankidetzan,
 - o estilo liburuak sortzea eta eskura ezartzea, Euskal Elkargoarekin lankidetzan
 - o itzulpen memoria bat osatzea, Euskal Elkargoarekin lankidetzan
- euskaraz lan egiten duten profesionalentzako formakuntza moduluak antolatzea
- EEPk laguntzen dituen operadoreei itzulpenerako laguntza eskaintzea

Euskalgintzako eragile pribatuentzako laguntza:

Hau da EEPk sortzetik duen eginkizunetako bat. IPE gisa sortu zenetik bere kideek eragile pribatuak diruz laguntzeko hautua egin zuten. Eragileak nagusiki elkarteak ziren, hizkuntza politikan aritzen ziren eta euskarazko eskaintza egituratu zuten hainbat alorretan: irakaskuntza, aisialdiak, helduen euskalduntzea, hedabideak, ikasmaterialgintza, argitalpenak, hizkuntzaren kalitatea... Testuinguru horretan, IPEak eragileak diruz laguntzen ditu, diruztatu dituen ekintzen jarraipena egiten du, izan Eusko Jaurlaritzarekin amankomunean osatu funtsarekin, ala zuzenean (Euskaltzaindia, Ikas). Laguntza horren xedea ez da zuzenbide arrunteko diru laguntzen lekua hartzea, baizik eta hauen osagarri izatea. Identifikatu diren eragileekin hitzarmenak sinatuz gauzatzen da, ekimen eta engaiamendu berriak eragin nahi dituen proiektu deialdi baten bidez.

EEPk bere jarduera hori sakontzeko operadoreen profesionalizazioa laguntzen du, bereziki zuzenbide arrunteko diruztatzeak hobeki baliatzeko.

Jadanik egin duenari eutsiz, EEPk honakoak eginen ditu:

- euskalgintzako eragile pribatuei diru-laguntza eskaintzea EEP/EJren arteko funtsaren bidez edo zuzenean, erakundeek bakoitzak bere eremuan ematen dituzten zuzenbide arrunteko diru laguntzekin koherentzian eta hauek osatuz:
 - o identifikatu diren eragileekin hitzarmenak eginez
 - o euskalgintza proiektu deiladiaren bitartez

- lagundu diren eragile eta egitasmoen jarraipena bermatzea, eta operadore hauekin lankidetzak garatzea: Biltzar Nagusietan parte hartuz, bilkura teknikoetan
- EEPko kideen eskumenekoak diren zuzenbide arrunteko diru-laguntzak hobeki mobilizatzeko lanean segitzea, kide bakoitzarekin lankidetzan, eta esleitu diren diru-laguntzen arteko koherentzia bilatuz
- euskalgintzako eragileen sendotze-profesionalizazio-egituraketarentzako laguntza eskaintzea
- lagundu diren ekintza eta proiektuen ebaluazioa azkartzea, bereziki, finkatu diren helburuetan duten eraginari begira

Mugaz gaindiko lankidetzak:

Euskara mugaz bi aldeetan mintzatzen da Euskal Herri osoan (EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria). Lurralde bakoitzak bere hizkuntza politika garatzen du marko eta errealtate desberdinetan. Sortu zenetik EEPk Eusko Jaurlaritzarekin lotu duen mugaz gaindiko lankidetzak hitzarmen-marko batean zehazten da. Eragile pribatuei elkarrekin ematen dieten diru laguntzaz haratago (ikus lehenago), interes partekatuko gai batzuetan elkarrekin eraman beharreko lanak zehazten ditu: euskara gaitasunaren egiaztatzea, inkesta soziolinguistikoa, adierazle sistema amankomuna, itzulpenerako laguntza sistema, ikasleen mugikortasuna, sentsibilizazio ekintzak, esperientzien partekatzea,... Berriki lankidetzak hau Nafarroara zabaldu da eta agirien baliokidetzak eta mugaz gaindiko mugikortasuna ere barneratu ditu.

Jadanik egin duenari eutsiz, EEPk honakoak egingen ditu:

- Eusko Jaurlaritzarekiko lankidetzak egituratua gauzatzen segitzea:
 - o hitzarmen bidez finkatu dispositiboa zehaztea eta gauzatzea: urteko lan plangintza zehazten duten hitzarmen-markoa eta urteroko eranskinak
 - o Eusko Jaurlaritzarekin hitzarturik eragile pribatuentzako diru laguntzen funtsa kudeatzea: hitzarmenak eta proiektu deialdiak
 - o urtero adostu lan ardatzak gauzatzea: agirien baliokidetzak, mugaz gaindiko adierazle sistema, inkesta soziolinguistikoa...
- Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuarekin hiruko lankidetzak gauzatzea:
 - o hitzarmena zehaztea eta gauzatzea: urteroko plangintza finkatzen duten hitzarmen-markoa eta eranskinak: irakasle eta ikasleen mugikortasuna eta trukaketak, diplomen baliokidetzak, mugaz gaindiko adierazle sistema, sentsibilizazioa...
- Euskal Elkargoarekin batera mugaz gaindiko lankidetzari buruzko gogoeta eramatea
- Euroeskualedeaz baliatzea egitura laguntzaile gisa, Europako diru-laguntzak ukan ditzaketen proiektuentzat

Politiken ebaluazioa eta jarraipena:

2006an hizkuntza politika Proiektua onartu zuenetik, EEPk adierazle sistema bat nahi izan du, eraman politikak jarraitzeko eta ebaluatzeko, eta horien eragina neurtzeko. Horrek erabaki diren ekintzen segipenean datza, baita arlo desberdinetan euskarazko eskaintzaren bilakaeraren eta eskaintza hori eskuratzen duen publikoaren jarraitzean ere. Beste helburu bat, hizkuntzaren egoera (hiztun kopurua, hizkuntza gaitasuna, erabilera maila, transmisioa, atxikimendua,...) izan duen eragina neurtzea da. Finean, eraman diren politiken eta horretarako ezarri diren baliabideen arteko eraketa egitea da. Guzti horrek politikak egokitzeko lagundu behar du, eraginkortasun handiena erdiesteko. Ebaluazio eta jarraipen funtzioa urteetan zehar egituratu da: 5 urtetik behin inkesta soziolinguistikoa egiten da Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuarekin, euskararen egoera neurtzeko. Inkesta horrek mugaz gaindiko adierazle sistema elikatzen du eta bide batez jarraipena eta behaketa zabaltzen (irakaskuntza, helduen euskalduntzea...). Bere aldetik EEPk ordura arte jorratu dituen lan esparruetako datuak zehatz-mehatz eta modu iraunkorrean segitu ditu: irakaskuntza, haurtzarora, lanbide formakuntza, hobekuntza kontratuak, eragileei laguntzak ... Gero, IPEa eraberritzen den aldiro, EEPk bere ekintzaren ebaluazioa eskatu dio frantses ministerioen arteko (Hezkuntza Nazionala, Barne Ministerioa, Kultura Ministerioa) misio bati, erregulariki, ebaluazioa kanpoko begirada batekin egiteko. EEPk egituratu duen jarraipen eta ebaluazio funtzioa haratago eraman behar da, bereziki jarraipena hizkuntza politikaren arlo guzietara zabalduz, kalitatea neurtzeko adierazleak gehituz (ikasle taldeen jarraipena, jarraikortasun tasa,...), kide bakoitzak bere aldetik eramaten dituen politiken behaketa eginez (hezkuntza nazionalak irakaskuntza alorrean egiten duen bezala) EEPren sortze hitzarmeneko 2. artikuluan erran bezala.

Honela, EEPk behaketa, zaintza eta ebaluazio funtzioa antolatu eta kudeatuko du:

- mugaz gaindiko adierazle sistema (EAS)
- adierazle kualitatibo eta kuantitatibo gehigarriak
- inkesta soziolinguistikoa (5 urtero)
- ikerketa bereziak (hedabideen ikusentzulegoa...)

- IPEko kideek daramatzaten politiken behaketa (ikus sortze hitzarmenaren 2. artikulua): jarraipenerako kalitate eta kantitate adierazleak, kideekin loturan
- bideratu edo lagundu diren politika eta dispositiboen ebaluazioa, bereziki finkatu diren helburuen gauzatzeari begira
- hizkuntza politika alorreko aktualitatea eta lege-esparruaren behaketa

EEPK, behar diren giza baliabideak ezarriz, diruztatu dituen ekintzak ebaluatzeko sistema bat ezarriko du, diru-laguntzak emaitzen arabera esleitzeko.

Informazioa, komunikazioa eta sentsibilizazioa:

2006an jadanik motibazioa erronka nagusi gisa markatu zen, hizkuntza transmisioaren eta erabileraren eremu guztietan duen eragina dela-eta. Hizkuntza politika arrakastatsua izan dadin, biztanle eta eragileen atxikimendua behar-beharrezkoa da eta motibazioa ere funtsezkoa da, hizkuntza politika proiektua eragile eta hiztunen atxikimendu librean oinarritua delako.

Erronka da, une oro eragile eta hiztunen motibazioa eragitea, hizkuntzaren transmisioaren eta erabileraren aldeko dinamika sortzeko. Honela, EEPk honakoak egiten ditu:

- eramaten diren politika guztiei buruzko informazio, komunikazio eta sentsibilizazio funtzioa egituratzea, arlo bakoitzean zer ikustekorik duten partaide guztiekin:
 - o dagoen eskaintza ezagutaraztea
 - o indarrean diren dispositibo eta politikei buruz komunikatzea
 - o sentsibilizazio dispositibo eta ekintzak ezartzea, zer ikustekorik duten erakunde eta eragileekin: guraso gazteen sentsibilizazioa, elebidunean segitzeko sentsibilizazioa guraso eta ikasleengan, eragile pribatuenganako sentsibilizazioa (enpresak, elkarteak), mugaz gaindiko sentsibilizazio dispositiboak...
- erabiltzen diren tresnen arteko eraginkortasun onena eta osagarritasuna bilatzea: prentsa bidez komunikatu, Interneten, sare sozialetan, argitalpen eta euskarri bereziekin...

Ikerketa:

Erronka, euskararen eta hizkuntza-politikaren zerbitzuan izanen den ikerketa dispositibo bat sustatzea da, ikerketa proiektu-eramaileak, jadanik dauden zuzenbide komuneko mekanismoak mobilizatzen laguntzen jarraituz, eta beharrez, laguntza ekonomiko gehigarria eskainiz.